Iragarkiak

Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

5471

EBAZPENA, 2009ko irailaren 21ekoa, Funtzio Publiko-aren zuzendariarena, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegian jardundako 486/09 zenbakidun prozedura laburtuan alderdi bezala ager daitezen, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2009ko irailaren 18ko Ebazpena eman duela non xedatu den Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiari bidal dakiola honako prozedurari buruzko espediente administratiboa:

486/09 prozedura laburtua: Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2009ko apirilaren 6ko Aginduaren aurka Idoia Epelde Arrieta andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Aurkaturiko agindu horretan, hain zuzen, ezetsi egin zen C, D, C/D Lehiaketa Orokorreko Balorazio Batzordeak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko helburuz 2008ko irailaren 18an eman zuen erabakiaren aurka jarritako gorako errekurtsoa

Prozedura horrek eragina izan dezake lehen esandako lanpostuak betetzeko lehiaketaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Aipatutako espedienteetan interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2 zenbakiko Epaitegiaren aurrean lehenago esandako prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 21a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
ELENA PÉREZ BARREDO.

Anuncios

Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

5471

RESOLUCIÓN de 21 de septiembre de 2009, de la Directora de Función Pública por la que se emplaza a los posibles interesados en el procedimiento abreviado 486/09 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Donostia-San Sebastián a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace publico que la Directora de Función Pública, con fecha de 18 de septiembre de 2009, ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Donostia-San Sebastián el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento abreviado 486/09, recurso contencioso-administrativo interpuesto por Idoia Epelde Arrieta contra la Orden de 6 de abril de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública por la que se desestima el recurso de alzada interpuesto contra el Acuerdo de la Comisión de Valoración del Concurso General C, D, C/D de 18 de septiembre de 2008, de aprobación de la relación definitiva de participantes admitidos y excluidos.

Este procedimiento puede afectar a la Resolución del concurso para la provisión de puestos de trabajo del concurso anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el art. 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

Emplazar a los posibles interesados en los referidos expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 2 de Donostia-San Sebastián y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de septiembre de 2009.

La Directora de Función Pública,
ELENA PÉREZ BARREDO.